



# BATZORDE ESKOLARRA

## HAUTESKUNDEAK IKASTETXEETAN

Iazko ikasturtetik hona, Hezkuntza Saila ikastetxeetako barne gestio eta antolakuntza behin behineko konponketak eginez mantentzen ari da. Dekretu hau ere hildo beretik datorkigu.

Administrazioak Batzorde Eskolarrak osatzeko hauteskundeak konbokatu ditu ikastetxeak, ikasturte hasierako gorabeherak pasatu ondoren, funtzionatzen hasten direnean.

Bestalde, Batzorde Eskolar berriak eratzeak, ikastetxearen bestelako egitura mota eta mailak (organu pertsonal zein kolektiboak) aldatu gabe utziz, desoreka eta kontraesanak sortzeko arriskua dakar.

Aspaldi honetako ohitura denez, Administrazioak ez du inolako azalpen ik eman, Dekretua eta hauteskundeak beraien interesen arabera ezarri.

## ALDAKETAK

86.ko Dekretuarekin konparatuz agertzen diren aldaketa nagusiak hauek dira:

- Gurasoen asanblada desagertu egiten da
- Batzorde Eskolarraren konposaketa aldatu egiten da:
  - OHOn eta Ertainetan konposaketa desberdina ezarri
  - Sektore ordezkarien kopuru desberdina ezarri
- Ahalmenei dagokienean, bai Batzorde Eskolarrari bai Zuzendariari funtzioak gehitu egiten zaizkie.
- Hautagaiak indibidualki edota kan didatura batetan joatea planteiatzen da.

## BIDE HORI EZ DA EGOKIA

### Prozedurari dagokionez

LABek, berriz ere, Administrazioak mantentzen duen jokaera salatu egiten du: sindikatu eta erakunde batzuekin bere hezkuntz proiektua "negoziatzen" duen bitartean, beste batzuei informazioa bera ukatzen dielako. Kasu honetan ere, Dekretu hau ezarri digute oinarritzko eskubi de sindikalak errespetatu barik.

Eta ikastetxeetan ere berdin. Hezkuntza Sailak, ikastetxeekin kontaktu gabe, betetzeko zaila den prozedura eta egutegia (EHAAn agertzen diren epeak betezinak dira) ezarri dizkie.


### Edukiari dagokionez

86.ko Dekretuari eginiko kritikak mantendu egiten ditugu Dekretu honen aurrean:

- Ikastetxeetako autonomia ez da bideratzen
- Ikastetxeko "estrukturaketa" besterik ez zaie interezatzen, horretarako arautegi zehatza ezartzen dutelarik.

Benetako ahalmenak "organo unipersonal" delako horietan kontzentratzen dira, egituraketa ierarkizatzailea bultzatuz.

Estamentu desberdinen parte hartzea ez da ziurtatzen ezta ordezkapen orekatua ere (Ertainetan ikaslegoaren bazterketa mantendu egiten da, ordezkarien kopurua gehitu arren).



## ANTOLAKUNTZA ETA GESTIOA

LABek ikastetxearen antolaketa eta gestioa, irakaskuntza partizipati-boaren bitartez, hezkuntza bere oso tasunean hobetzeko tresna bezala ulertzen du.

Irakaskuntzaren egungo antolaketan nabariak dira partaidetasunik eza eta antolaketa eta gestiogintzaren arteko "deskoordinazioa". Kasu askotan, laguntza izan beharrean, zama astuna bihurtzen da irakasleentzat efikazia ezagatik, ierarkizazioagatik eta egunero Administrazioetik ezartzen zaizkion dekretu eta aginduek dinamika propioa sortzeko ipintzen dizkioten oztopoengatik.

Hezkuntz legeak gehienbat antolaketarekin dotore eta ponposoak agertzen arduratzen dira, baina zertarako balio dute organigrama guzti horiek ikastetxe bakoitzak ez badu ia ezer "gestionatzeko"?

Honen ondorioz, langileek ez dute parte hartzen eta gestioa tramite burokratiko hutsa bihurtzen da.

Administrazioari, gainera, bost axola zaio antolaketa ereduak eta organigramak betetzen diren ala ez, bere ordezkariak diren ikastetxeetako arduradunek (Zuzendariak, Idazkariak, Ikasketa Buruak...) gestionatu behar duten apurra zuzen gestionatzen badute.

Eraketa eta gestiogintza irakasle bakoitzaren hezkuntz lanaren osagarri izatea lortu nahi badugu, demokratikoa eta guztien partaidetasunez egina izan beharko luke eta ez bere ziki ordaintzen diren pertsona bakoitzaren karguek bultzatua, ikastetxe bakoitzari autonomia handiagoa eskeintzeaz batera.



## LABEN JARRERA

Gure proiektua eta Dekretu honen bidez Administrazioak ezarri nahi digun hezkuntz eredia elkarrengandik oso urrun badaude ere, honek ez du suposatu behar irakaslegoak parte hartu gabe egon behar duenik, argi bait dugu hezkuntza eskuartzaile eta aurrerakoia bultzatu nahi dugula.

### ANTOLAKUNTZA ETA GESTIOA

Maila honetan Dekretu honen "legalitatea" gaingitu behar dugu, parte hartze zuzena (arduren banaketa), ordezkapen egokia eta parekidetasuna bermatuz.

Zuzendaritza Administrazioaren zerbitzari eta bozeramaile izatetik Batzorde Eskolarraren erabakien bideratzaile izatera pasatu beharko da, jarrera sektorialak edo korporatibistak gaingitzeko ahaleginak eginez.

### EUSKALDUNTZE PROZESUA

Euskara Euskal Herriko hizkuntza eta euskal kulturaren ardatz nagusia izanik:

- 12 urtetarako ikasle guztiek lortu beharko lukete oinarrizko hizkuntza gaitasuna bai euskaraz ikasteko bai bizitzeko ere.
- Ikastetxearen funtzionamendua, barne zein kanpokoak, euskaraz izango da.
- Administrazioak irakaslegoaren euskalduntzearen planifikazioa bide ratu behar du.

### KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza trasferitutako egoera larria aldatzeko asmoz, orain bi urte irakaslegoa grebara joan zen, gutxienezko plataforma baten inguruan indarrak batuz. Finantziaketa, giza zein material errekurtoak, irakaslegoaren prestakuntza, ratioak, irakastorduak, ikastetxeetako zerbitzuak... ziren plataforma horretan aldarrikatzen ziren zenbait puntu.

Baina CCOO, ELA eta UGT-k sinatutako akordioak ez ditu beharrezkoak diren hobekuntzak ekarri.

Plataforma hori oinarritzat hartuta, kalitatezko irakaskuntza lortzea eta lan baldintzak hobetzea izan behar ditugu helburutzat.

### PEDAGOGIA AURRERAKOIA

Hezkuntz sistema berriak aldaketa pedagogikoak ere eskatzen ditu.

Euskal Hezkuntz sistemak pedagogia aktibo eta berritzailean egon behar du oinarriturik: ikasleak beraien heziketaren sujetu bihurtzen duen pedagogia, ikasleen errealitate eta beharretatik abiatuz, berajen ahalmen guztien garatzailea den pedagogia erabiliz. Eta hau ezin da ikastetxeetako lau ormetara mugatu.

Horrek, zalantzarik gabe, irakaslegoaren heziketa etengabea eta berziklapen egokian erroturik.

Pedagogia egokia proiektu eskolarrarekin lotuta eta berai langile klasearen zerbitzutan.